

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresak mota askotako harremanak izango ditu. Lehenik eta behin, gure produktua gehienbat ikasleei zuzenduta dagoenez, hasiera batean gure asmoa gehienbat gure webgunetik saltzea izango litzateke baina hala ere, informatika aparatuak dauden dendetan ere saltzeko asmoa dugu.

Gainera, gure webgunean gure produktua saltzeaz gain, produktuarenganako informazioa egongo da. Mota guztietako informazioa: webpenaren funtzio guztiak, bezeroek ahalik eta probetxu handiena atera dezaten; bezeroen galdera ohikoenak erantzunda egongo dira, eta gainera, telefono zenbaki bat eta korreo bat egongo da edozein arazori erantzuteko. Eta atentzio mota hori, laguntza pertsonala izango da, enpresako langile bat egongo baita bi bide hauetatik bezeroekin harremanetan.

Bestalde, lehen esan bezala, gure produktua ere informatikako produktuak saltzen diren dendetan produktu osagarri gisa egongo da. Eta bertako langileak, webpenari buruz informazio osoa izango dute edozein arazo konpondu ahal izateko.

Beraz, gure bezeroenganako harremana pertsonalizatua izango da, baina ahal badute beraiek autozerbitzurako aukera izan dezaten, informazio asko eskainiko da gure webgunean.